

ARRASATE ^{PRESS}

1993ko uztailak 2

198. zenb.

Elkarrizketa

Lourdes Romano,
eskualdeko
turismoaz

Kultura


Gorosarri
abesbatzak
hamar urte

Parrokia
berritzekotan

Iparragarre (Zaldibar)

Makatxena auzuei bere izena bertan kokatute euen basarrittik datorkixo, nahiz da bere jatorrizko izena Iparragarre izen. Denpora baten labrantzarako ebalten zien lurrek gaur Santamaiña, Hondarribi eta Makatzena kalietako etxe eta asfaltuek bete dittue.

Bertako azken bizilagunek Bibiana Garai Lizarralde eta Karlos Agiriano bere semie izen zien, gaur kalien bizi dienak. Bibianan gizona, Leon Agiriano, Musakolako Altxibar basarrikue zan. 39 urtekin hil zan. Gerran Amaiur batailloien eta gero



trabajadorietan ibilite gaixotute etorri eta gazterik hil zan. Bibianan aitte, Joxe Mari Garai Bergaretxe, bertako semie zan; ama


barrez, Kontxa Lizarralde Mendizabal, Elorrixoko Isasi etxekue.

Bibiana eta, 9 anai-arreba zien. 11 urtekin

krieda fatie tokau jakon. Urte batzuk geruau, Erdiko kaleko Txikixeneko dendan interina lanak eta dendie zabalketako ardurie izen eben. Alargundute gero barrez, Zerrajeran lanien hasi zan harik eta jubilau arte, 23 urte lanien eindde gero.

Iparragarre Markes de Trebiñona ei zan eta oin 40 urte inguru dala etxiek eittuko sortu zan asoziazioño batek erosi eben. Oin hogetaka urte basarrixo bota eta azkenengo etxiek ein zittuen.

Basarrixo galdu da, bañe bere izena auzuek betiko gordeko dau.



KÖMMERLING
PVCzko leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

Gatzagan,
erdi erdian...
**ZUHAITZ
JATETXEA**




Tfnoa: 71 46 08

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Langabezia: mende honetako madarikazioa

Kapitalismoaren maldizioa da, bere Aquilesen horpoa. Kapitalismoa harro dago marxismoarekiko lortuen garaipen izugarriaz, baina ez daki merkatuaren eta liberalismoaren garaipena nola administratu. Deskalabru historikoa azaltzeko gai den teoria orokorrik gabe dago, Europako Ekonomi Elkartek 17 milioi langabetu ditu 1993an, %11,5eko langabezia eta Espainian %24koa, 93aren amaiera aldera disparatzea espero delarik kopuru hori, eta hori baino txarrago dena, bere barne-mekanismoen autozuzenketengain utzita dagoen eredu edo sistema batek zer irtenbide izan dezakeen jakin barik. Hartzeko ahobatasunez, malgutasun laboralera eta prestazioen murrizketara jotzen dute, eta irtenbide beharrezkoa izan arren, ez da nahikoa hori ere, antzematen diren emaitzek aditzera ematen dute-nez. Izan ere, lanpostu egonkor eta denboran finkoak gutxiengoa izango direla inork ez du ukatzen; prekaritasuna eta autoenplegua izango dira, belaunaldi berrien bidai-lagun.

Irtenbidea "Pymes" ak —enpresa txiki eta ertainak— direla esaten da, industri-lanpostuen %70a surgatzen dutenak direlako, baina jaiotzen diren %60a 4 urteren buruan hil egiten dela ere badakigu eta "Pymes" ak bakarrik ere ez dira nahiko, handien beharra ere badago, horiek dira eta esportatzeko, nazioarteko merkatuetan borrokan egiteko gaitasun gehien dutenak.

"Pymes" etako askok handien baitan dute zentzua eta etorkizuna, handien hornitzaile dira; baka-rik ezin dute mundu mailan komertzializatu.

Inolako zalantzarik gabe, "Pymes" ak malguagoak eta moldagarriagoak dira eritmo kompetitibo azkarrarekiko, baina euren kompetitibitate maila handitu beharra dute esportazioko kostuen katean sartu, eta denboran irauteko ahalmenik izango badute, ituneak eta gestioiko talde txikiak sortuz.

Enpresa, instituzio bezala, erabakiorra da herrien bizimoduan, gurearenean batez ere, eta enpresa-ekimenak indartzeko egiten diren ahalegin guztiak gutxi dira. Komunitateak eta gaitasun handieneko pertsonek, giroa sortu eta


animazioko foroak eta gestioko mekanismoak sortzeko obligazio morala dute, irtenbideen diseinu estrategikoa bultzatzeko obligazioa, hainbeste jenderen frustrazioa arinduko bada. Lehenengo bete-behar morala da gaur.

Gestioaren zientzia eta teknologia bateratzeak eta horrek produktibitatean dituen ondorioek dramatikoa egingo dute panorama seguru asko; langabezia belaunaldi berrien kide finkoa izango da eta gizarte eta sistema erdua zalantzan jarriko da.

Lanaren banaketaz hitzegiten da. Lana dutenak dira gaur egun jauntxoak eta ez dutenak paria eta ahulena.

Baloreen eta gizartearen funtzionamenduko eskemen krisi latza antzematen da, baina hori iristen den artean, momentu bakoitzera egoki daitezkeen irtenbideetan murgil egitea da herrien obligazioa. Eta horrek izen bakarra du gaur egun: **mobilitatea**, herria eta indar sozialak inplikaturaz dinamizatzeko gai izango diren erakundeak sortzea.

JESUS LARRAÑAĞA



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1.- 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Ihintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larriaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS
paper ekologikoan egiten da.

Azaleko argazkia: Luis Fernandez



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



•••••

Esker onez

Arreko igandeko bezalako beste 13 batean, orain dela urtebete eskas, Aretxabaletako saihe-sbidean nire seme Unai eta biok istripu latz bat izan genuen, non biok egoera larrian suertatu ginen, Unai batez ere, amaigabeko hila-bete luze batean konorte gabe iraun zuelarik.

Eskutiotz hau idaztera bultzatu nauen arzoai, bihotz bihotzez, euren laguntza eskertzea da. Gasteizko Santiago Ospitaleko langile diren guztiei, 6.A solairuari, bereziki, ahaztu gabe 3. eta 4. solairuko UViko pertsonala, euren zeregina zoragarri betetzen dute eta.

Aipatu nahi nuke 4. solairuko erizaina den Idoia Beiztegi, "Unairen bigarren ama" ezizenez ezaguna, mutikoa maitasun handiz zaindu baitzuen.

Eskertu nahi diet, gura familiari eta lagunei sasoi horretan agerturiko adiskidetasuna, gu laguntzeko prest beti. Horrelako egoeretan ezagutzen dira lagunak eta harro esan dezaket oso lagun onak izatea demostratu duzuela.

Gure egoeraz, interesatu diren guztiei, denoi, mila esker, momentu gogor haietan eskeinitako laguntzagatik.

**UNAI TXAPARRO
ARANTXA VIEIRA**

•••••

Negargarrixa

Negargarrixa. Negargarrixa bai, eta amorrugarrixa be bai, eta ikusi neuen gausia. Iturripe'ko Kirroldegixen, an dauzen arbola gastietatik bat, erdi-erdi-txik apurtuta, ta gero "Uribarzuri"tik "parke" barrira sartzeko bidean beste arbola gaste bat, a be, erdi-erdi-txik apurtuta. Oneik ein dittuena ez zarra eta ez mutikua, oneik ein dittuenak gastiak ta sasoikoak izan bier zien. Errixa or dabil, "parke" ta lorategi polittak ipintzen danontzako, gero burubako batzuk apurketako, au ikusiezinezko gausia da, estau deretxorik.

ARRASATEAR BAT

•••••

Play-off

Hilabeteak daramatza-gu pastelena koloreko futbol talde horren kontu hori argitzen ez dela: igo dezan nahi dugun ala ez.

Garai honetan, (93-06-09) porrot eta berdinketa zaparrada bat jaso dugu dagoeneko eta mutikoak desanimatu egingo direla imajinatzen dut.

ONCeren kupoia ikusi dut eta bata bestearen gainean lapak bezala dauden ugarixo bi ageri dira marrazkian, eta denbora faltaren-

gatik beti negarrez gaudela gogora ekarri dit horrek.

Nahiko izaturik geratu nintzen, birritan, (behin ez, birritan diot) Santa Agedako interno batek igande arratsaldean futbol partidua ikustera zihoala esan zidanean, eta nire harridurarako, oinez haraino joan ondoren, bi egunetan kanpoan jokatzeko zuten. Eta nik badakit ez zidala adar soinuaren esan (gogora dezagun esaera: "zorabuta gaudelako gaude hemen, eta ez tontoak garelako").

Zerrailen herriari egin zaion iruzurra baino ez da hori, Zaldibarko futbitoarentzat hainbeste antolaketa egin ondoren, irabazteko gogo hori geratzea eta gero horrek zelaian benetako eraginik ez izatea. Eta uste dut zelaia ez zutela inguru haie-tan gal daitezkeen lau turistek erakusteko egingo.

Eta beraz, bizimodu modernoaz eta denboraz dugun nahaspila guzti honekin, ondo legoke igoerako play-off honetan kluba apoiatzea, behar genuen tokian egoteko, Lenizko hiriburua honek duen biztanle kopuruarekin. Eta ez bakarrik larunbat gauean gure bolidoarekin jainkoak dakien tokietan zehar galdu eta gero igandean beste egun bat dela baino ez jakiteko; mutil horiek dago-kien tokian jartzeko bultzada apur bat ere gorde behar genuke, batez ere Gesalibarrerako bidea zabaltzera doazela kontuta izanda.

Horra apuntea egina.

JOSE COSTANA MATA

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

Memesa
79 42 22

VE ECUADOR
Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

Aurtengo San Juanetako balantzerik?




Iban Gonzalez
San Biatorreko ikaslea
(15 urte)

Kanpoan egon naiz baina entzún dudanez, nahiko ondo egon dira. Beste urte batzutan hemen egon izan naiz baina aurten kasualidadez kanpoan egon naiz.



Kontxi Iñarra
Etxekoandrea
(42 urte)

Ondo pasatu dut baina zezen jaia nahiko pobre geratu da. Aurreko urtetako zezenak askoz ere gehiago gustatu izan zaizkit. Kuadrilekin ere izan dira arazo batzuk, baina...




Mikel Aranzabal
Fagorreko langilea
(32 urte)

Lanean eta etxean pasatu ditut aurtengo San Juanak. Egia esan, ez gara enteratu ere egin. Umeentzat ere ez da gauza gehiegirik egon.



Mari Karmen Arana
Etxekoandrea
(52 urte)

Beno, beti bezala. Ekintza batzuk, dragoiaren ikuskizuna bezala, ordu txarrean izan dira eta ia ia ez ditugu ikusi ere egin.



Miren Josebe Gay
UBIko ikaslea
(18 urte)

Aurtengo San Juanak zoragarriak iruditu zaizkit. Nire ustez dantzaldietan eta, aurreko urte batzutan baino giro hobea egon da.




Enrike Bueno
Uxarte gozodendako langilea
(23 urte)

Ondo joan dira baina egun batzuetan jende gutxi ibili da. Ni behintzat, goizero lanean ibili naiz, txokolatea egiten.



Rebeka Etxebarria
Etxekoandrea
(31 urte)

Guk umeekin irten dugu eta egunez irten dugu, batez ere. Gauza berriak ere gaeuz izan dira eta ez ditugu ikusi ere egin.



Sebastian Barriocanal
Jubilatua
(70 urte)

Urtero urtero Peñiskolara joaten gara eta aurten ere bertan pasatu ditugu San Juan jaiak.



ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

LAURA

GAZTE MODA

Erdiko kale, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 57 20

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguualatoroa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 71 44 52
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak 45 87 44

Udaitzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 2
 Egunez: Azkoaga, Ferrerías.
 Gaeuz: Guallar. **San Antonio.**

Larunbata 3
 Egunez: Español, Iturrioz.
 Gaeuz: Estella, Matxiategi.

Igandea 4
 Egunez: Corcuera, Musakola.
 Gaeuz: Estella, Matxiategi.

Astelehena 5
 Egunez: Irizar, Erguin.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

Asteartea 6
 Egunez: Amezua, Santamaina.
 Gaeuz: Camacho, Oxirondo.

Asteazkena 7
 Egunez: Ruiz, Maala.
 Gaeuz: Puy, Barrenkale.

Osteguna 8
 Egunez: Morales, San Andres.
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.

2 OSTIRALA

ZINEA
 "Por encima de todo" (7,10)

ANTZERKIA
 Tunantes de Norte taldearen
 "Una de kasas" obraren antzezpena. Gaueko 10.30etan. Monterron Parkean. Sarrera: 500 PTA.

BLUES KONZERTUA
 "Parada de blues" taldearekin blues kontzertua. Gaueko 11etan. Elorriko Kafe Ate-neon.

ROCK KONZERTUA
 "Ruido de rabia" eta "Virus" taldeekin rock kontzertua. Gaueko 9etan. Arrasateko Gaztetxean.

PILOTA TORNEOA
 Pilota torneoa. Gaueko 10etan. Aramaioko Kiroldegian.

ROCK JAIALDIA
 "Amatxon", "Xementerio" eta "S.A." taldeekin rock kontzertua. Gaueko 11etan. Aramaioko Bixente Goikoetxea enparantzan.

ARAMAIOKO JAIAK

Gaur ostirala San Martin jaiak hasiko dira Aramaion. Arratsaldeko 7etan emango zaie hasiera jaiari eta gaueko 10etan pilota partidua izango da Kiroldegian. Gaueko 11ak aldera rock jaialdia egongo da Bixente Goikoetxea enparantzan. Larunbatean berriz, Bixente Goikoetxea enparantzan umeentzako jai egongo da eta arratsalde partean futbito txapelketako finalak Kiroldegian, Gesaltza txaragaren emanaldia kaleetan zehar eta gaueko 10etan antzerki saioa. Antzerkiaren ostean Basakabi taldearekin dantzaldia hasiko da. Igandean Meza santua, plater tiraketa arratsaldeko 4etan, Lagun Arte taldearen dantza erakustaldia, "Lugarri" folk taldearen emanaldia 7etan eta gaueko 11ak aldera "Izar" taldearekin dantzaldia hasiko da. Astelehenean bukatuko dira jaiak, 12.30etan haurrentzako jolasak egongo dira, 2etan herri bazkaria, arratsaldeko 5etan umeen jolasak eta gaueko 10.30etan "Izotz" taldearekin dantzaldia.

3 LARUNBATA

ZINEA
 "Herida" (5,7.30,10)

AEROBICeko IKASTARO TRINKOA
 Aerobic-eko ikastaro trinkoa. Goizeko 10etatik 11.30etara. Irakasleak: Arantzazu Zubia eta Pili Muñagorri. Aretxabaleta Musika Eskolan.

ROZIOKO ERROMERIA
 Rozioko erromeria. Irteera: goizeko 9.45etan Udalako Parrokiatik. 12etan Rozioko meza. Arratsaldeko 4etan, talde desberdinen emanaldia Al Andalus elkartearen.

ARAMAIOKO JAIAK
 Umeentzako jaiak, goizeko 12etan; futbito txapelketaren finalak, arratsaldeko 4etan; "Nor-Nori-Nork hau saltsa" antzerkia, gaueko 10etan; "Basakabi" taldearekin dantzaldia, gaueko 12etan.

4 IGANDEA

ZINEA
 "Herida" (5,7.30,10)

EGUNKARIAREN JAI
 Egunkariaren jaiak, lurretara joateko autobusak. Irteera: goizeko 10etan Garibaitik. Prezioa: 700 PTA.

ARAMAIOKO JAIAK
 Meza santua, eguerdiko 12etan; Plater tiraketa, arratsaldeko 4etan; dantza emanaldia, arratsaldeko 6etan; "Lugarri" folk taldearen kontzertua, arratsaldeko 7etan; "Izar" taldearekin dantzaldia.

PINTURA ERAKUSKETA
 Iñigo Arregiren pintura erakusketa ikusteko azken eguna. Harresi Aretolan.

EGUNKARIAREN JAI
JOATEKO AUTOBUSAK

Datorren uztailaren 4an ospatuko den Euskaldunon Egunkariaren jaiak joateko autobusak antolatu ditu AED elkarteak. "Eman arnasa egunkariari" izenburupean egun osoan zehar ekintza ugari egongo dira lurretan. Jai honetan honako hauek hartuko dute parte: Kukubiltxo, Sebastopoleko titiriteroak, Goloka, Xabier Amuriza, Unai Iturriaga, Jon Sarasua, Igor Elorza, Juanjo Respaldiza, Maddalen Lujanbio, Aitor Sarasua eta Iratxe Ibarra bertsolariak, Martxoak 31, Mikel Markez, Arkatz, EH Sukarra, Su Ta Gar, Kaxiano, lurretako dantzariak, eskalada erakustaldiak, Anbotoko auzpoak, trikitalariak, txalaparta, Lanperri eta Miliku trikitalariak... Autobusak goizeko 10etan Garibai geltokitik irtingo dira. Prezioa: 700 PTA.

5 ASTELEHENA**ZINEA**

"Herida" (7,9.30)

JOSKINTZA INDUSTRIALA IKASTAROA

Joskintza industrileko ikastaroan parte hartzeko izena emateko azken eguna. Langabetuei zuzenduta. Iraupena: irailetik maitzera. Udaletxean.

ARAMAIOKO JAIAK

Meza santua, eguerdiko 12etan; haurrentzako jolasak, 12.30etan; herri bazkaria, eguerdiko 2etan; umeen jolasak, arratsaldeko 5etan; "Izotz" taldearekin dantzaldia, gaueko 10.30etan.

**KANPOKO LOREN LEHIAKETA**

Ibai-Artek, Arrasateko erdialdeko balkoi, leiho eta begiratokietan dauden loren lehiaketa antolatu du. Pasa den maiatzaren 13tik uztailaren 10era bitartean jarritako lorak hartuko dira kontutan. Sariak honako hauek izango dira: lehenak 50.000 PTA jasoko ditu, bigarrenak 25.000 PTA, hirugarrenak 10.000 PTA eta beste zazpi 5.000 PTAkoak.

UZTAILEKO BABYLEKUAK ETA IRAILEKO UDALEKUTXOAK

Aurten aureskolan ibilitako lehen, bigarren eta hirugarren mailako umeentzat babylekuak antolatu dituzte AED elkarte-ludotekariak. Uztailaren 5etik 16ra eta 19tik 30era bitarteko txandak bereiztuko dira. Arratsaldeko 3etatik 7etara egongo dira zabalik eta matrikulatzeko orduan 3.000 PTA ordaindu beharko dira txanda bakoitzeko. Parte hartzeko interesa duzuen guztiok gogoratu ludotekatik edo AEDtik pasa zaitezketela. Horretaz gain, urtero bezala irailerako udalekutxoak ere antolatu dira. AEDko txatxilipurdi taldeak antolatzen dituen ekintza guztiek bezala euskararen erabilera indartzea dute helburutzat. Aureskolako hirugarren mailan eta OHoko lehen eta bigarren mailakoei zuzentzen zaizkie udalekutxoak. Matrikula 3.200 PTA ordaindu beharko da eta ordutegia arratsaldeko 3etatik 6etara izango da.

6 ASTEARTEA**ZINEA**

"Herida" (7,9.30)

MERENGE IKASTAROAREN HASIERA

Merenge ikastaroaren hasiera. Arratsaldeko 7etatik 8etara. Eskoriatzako Kiroldegian. Prezioa: 1.000 PTA.

7 ASTEAZKENA**ROZIOKO ERROMERIA**

Bihar larunbata, uztailak 3, Rozioko erromeria ospatuko da Arrasaten. Urtero bezala, Udalatik irtengo da Esperantzako Amabirjina eta herriko kaleak zeharkatuko ditu. Eguerdiko 12ak aldera Tomas Iturbek emango duen Rozioko meza egongo da, 2etan loren eskaintza, ondoren bazkaria eta arratsaldeko 4etan Andaluziako talde desberdinen emanaldia hasiko da.

ERAKUSKETA MONTERRONEN

Pasa den uztailaren 1etik datorren 30a bitartean zabalik dago Monterroneko liburutegian bidaien inguruan antolatu den erakusketa. Bertan: bidaizaleentzat aukeratutako literatur liburuak, bidai-aldizkarietatik ateratako artikulak eta bidai-gida liburuak ikus daitezke. Erakusketa uztailean zehar egongo da zabalik, goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 8etara. Literatur liburuak uztailaren azkeneko astean etxera eramán ahal izango dira.

JUSTO GARATE ARRIOLA BEKA

Bergarako Udalak giza-zientzien alorrean ikertzaile gazteen artean ikerketa sustatzeko xedez, Justo Garate Arriola ikerketabeka sortu du. Ikerketa euskaraz egin beharko da, iraupena 11 hilabetekoa izango da eta diru zenbatekoa 935.000 PTAkoa izango da. Eske-idatziak eta gainontzeko agiriak aurkezteko epea irailaren 1etik 30era arte egongo da zabalik. Bergarako Udaleko Udak Kultur Zerbitzuen Batzordera bidali beharko dira eske-idatziak.

8 OSTEGUNA**ZINEA MONTERRONEN**

Zinea Monterron Parkean. Gaueko 10.30etan. Sarrera: 300 PTA.

ESKALADA IKASTAROA

Gipuzkoako goi mendiko eskolak eskalada ikastaroa antolatu du datorren uztailaren 10, 11, 12, 13 eta 14rako. Midi de Ousseu eta Digne Male herrietan hasiera eta hobekuntza mailak emango dira. Interesatuok Besaide elkartetik pasa zaitezkete. Prezioa honako hau izango da: besaideko bazkide helduntzat 14.000 PTA, bazkide gazteentzat 12.000 PTA. Bazkide ez diren helduntzat 16.000 PTA eta bazkide ez diren gazteentzat 14.000 PTA.



“Euskal Telebistan ikusi nuen pilota-partiduan (...) bi euskal pilotari handiren arteko elkarrizketan erdara zen hizkera. Biak nafarrak, postura egingo nuke erdaraz baino euskaraz hobeto mintzatzen direla gainera (...) Esnatu gaitezen euskaldunok, eta konturatu zertan ari garen. Etorkezunari begira ere, okerreko eredia erakutsi bait ziguten kirolari hauek.

Ia hurrengoan euskaraz hitzegiten aditzen ditugun!

Unai Bergaretxe arrasatearrak

Egunkaria

“Errepide hauetan kilometroak egiten hamabost urte daramatzen zikloturista bat naiz eta ezikuski egin eta inoren bizitzarekin jolas egiten duten hainbat gidarirekin (kamioi gidariek batez ere) gogait eginda nago.

Ulertzen dut errepide batzuk ez direla egokiak gaur egun dagoen trafiko handiarentzat, alde guztietara iristeko presa handia dagoela, baina traba egiten dugun guztiok (kurbatan, bidaguruzetan...) aurrean hartu eta botatzea da onartezina dena. Horrek arduratu egiten nau, baina horietako gidariren batek botatzen nauenean (bizirik geratzen banaiz) izan dezakedan errakzioak gehiago arduratzen nau, gidari horiek kokoteraino nago eta”.

Aitor Nafarrate arrasatearrak

EL DIARIO VASCO

“Poztu egiten naute Mario Onaindiaren adierazpenek. Euskal Herriak bertsolariak eta Rocio Jurado berdin maite dituela esan omen zuen mitin batean. Pertzepzioan kointziditzaiek poztu ninduen. Garrantzitsua da gauzen pertzepzioan alde handirik ez izatea Gipuzkoako lehen senadorearekin. Uste dut, gainera, oinarritzko hainbat gauzetan ere bat natorkiola. Horrekin eta pertzepzioarekin, elkar ulertzea posible eta dena da. Proiektuan dago aldea, jakina. Eta kulturaz ari naiz, baina beste edozertaz ere ari nintekeen. Gure herriko erdaldunekin amankomunean asko baldin badut, Onaindiarekin askoz gehiago”.

Jon Sarasua

Egunkaria

Zer planteatzen diozue Udalari?

1 1991ko martxoaren 3an, duela bi urte baino gehiago, Arrasateko zenbait gaztek, beste era batean etxerik lortu ezinik, aspalditik hutsik zeuden etxebizitza batzuk okupatzea erabaki genuen. Okupatzea ez zen etxebizitzaren arazoa eta espekulazioa salatzen soilik izan... egiazko arazo bat konpontzeko baizik.

Aski ezaguna da Arrasaten etxebizitza asko eta asko hutsik daudena, baina oso gutxi daude alokatzeko, eta daudenak prezio lotsagarrian daude, 40.000tik 70.000 PTArainoko prezioetan.

Udal hau, urte batzuetan zehar bere jabetzako pisu guztiak saltzen aritu da, okupazioak bezalako arazoak ebitatzeko eta eskuak garbitzeko, baliabide ekonomiko gutxi daukan jendearentzat alokairu merkeko politika bultzatu beharrean. Babes ofizialeko etxebizitzak hor daudela esaten digute... Ondo dakite baina, oso pertsona gutxi sartzen dela horietarako itxoite-zerrenda luzeetan. Eta, noski, lan finkorik ez duen edonori ezinezkoa zaio etxebizitza bat eskuratzea, babes ofizialeko direlako horiek barne.

Gaian gehiegi sakondu gabe, udalak gu Ferixalekutik atera nahi izatea txarto iruditzen zaigula esan beharra daukagu:

1. Aurretik ere esan dugunez, udalak ondo dakielako baliabiderik gabeko pertsonak garena.
2. Etxe horiek ez dagozkigu guri, baina aldi berean egia da eraiuntza ez dela oraindik udalarena, hezkuntza sailarena baizik.
3. Udalak bere jabetzako etxebizitzarik ez duela sinetsi nahi dugu, baina ikastola proiektu hori egiteko bezalako lokalak badauzka.



Ferixalekuko okupak.



CIM

HIZKUNTZAK-IDIOMAS

- Umeentzako klaseak
- H.E.O.ko azterketarako prestatzeko klaseak
- Hizkuntzak ikasteko klaseak orokorrean

93-94 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKITA DAGO !

Hurbil zaitez gure bulegoetara

ARRASATE: Araba Etorb., 4 Tfnoak: 79 01 32 / 79 65 54
OÑATI: Olakua, 14 Tfnoa: 71 60 00



PEUGEOT - TALBOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Txitxinpe

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Gay eta lesbianen alde

Astelehenean, ekainak 28, manifestazioa izan zen Arrasaten, homosexual eta lesbianen nazioarteko egunean. Ehun bat lagun bildu ziren, aukera sexual askeak errebindikatu. Nazioarteko egun honen inguruan, sexualitatearen gaineko bi mahainguru ere egin dira aste honetan Arrasaten.



Sanjuanei agur

Sanjuanak nolabaiteko polemika giroan hasi ziren arren, normaltasun giroan ospatu zituen herriak, eta arazo barik amaitu ziren. Koadrilek beren desadostasuna azaldu zuten, beren ekintzetarako eskatutako aurrekontua ez zietelako betetzen, eta horregatik jai egitarau ofizialari boikota egin eta programa alternatiboa antolatu zuten. Horren adierazgarri izan zen bazkari herrikoia: ofizialean iaz baino jende gutxiago izan zen Zaldibarren jaten, 550 lagun inguru. Koadrilek beren kasa antolatu zuten bazkari herrikoi bat, udaletxeko arkupeetan, eta 70 bat lagun elkartu ziren bertan. Jaien inguruko beste komentario zabaldu bat: Monterrongo zelaian zezenekin izandako martxa eskasa. Entzierroak goioan izan dituzte askok.

Kirol taldeen eskaera

Arrasateko kirol taldeek Aukea elkartearen beren ordezkariak handitzeko eskaria egin diote udaletxeari. Kirol talde bakoitzak hiru ordezkari ditu Aukeako zuzendaritza organuetan, baina lura igotzea eskatzen zuten orain. Orain ordezkari politikoen eta kirol ordezkarien neurria parekatuta dagoela eta, Udalaren aldetik ezetza izan da erantzuna, aurrerantzean ere hala izan dadin erabaki baitu Udalak.

Turismo sailburuordearen bisita

Deba Garaiko turismoa garatzeko dagoen plangintza

ezagutzen egon ziren Arrasaten Jaurlaritzako turismo sailburuordea eta zuzendaria, Javier Blanco, eta Julia Gomez, Deba Garaiko Mankomunitateak gonbidaturik. Turismoa garatzeko programa aurten

hasi da, eta Deba Garaiko 8 udalek hartzen dute parte. Aurten 10 milioi PTA inguruko aurrekontua du planak, eta dirutza hori betetzeko laguntza eskatu zien Mankomunitateak Gasteizko ordezkariari.

HIESdunentzako lokala

HIES-ekimenak, HIES gaitzak afektatutakoentzat lokal bat edo pisu bat eskatzen dio Udalari, afektatuak bildu izan daitezten. Udaletik erantzun dietenez, HIES-ekimena Deba Garai osorako elkarte bat denez, Mankomunitateari egin beharko diote eskaera, udalak berak ere pisu edo lokal libre asko ez daukanez gero.

JAIOTZAK

- Maddi Labayen Iraeta. Ekainaren 11n.
- Markel Sainz Oruna. 12an.
- Adrian Izkue Escobales. 14ean.
- Gorka Arejolaleiba Moreton. 15ean.
- Nerea Pozo San Vicente. 15ean.
- Deiane Fernandez Jimenez. 16an.
- Iñigo Uribarren Garai. 18an.
- Aitor Zeziaga Belategi. 20an.
- Nerea Pagaldai Agiriano. 21ean.
- Jon Kabia Arregi. 22an.
- Michael Marcos Murillo. 22an.
- Julen Gonzalez Hernandez. 23an.
- Eva Abuin Bideburu. 25ean.

EZKONTZAK

- Jon Goikolea Diaz & Chieko Hata. Ekainaren 18an. Zibilez.

HILDAKOAK

- Maria Pilar Garcia Valero. Ekainaren 16an. 92 urte.
- Ines Lorenzo Pozo. 17an. 75 urte.
- Antonio Delgado Sanchez. 18an. 63 urte.
- Joaquin Azurmendi Urruzola. 18an. 69 urte.
- Julia Mercedes Ajuria Txopitea. 23an. 86 urte.
- Josefa Sainz Arriaga. 27an. 73 urte.



LASAGABASTER

MERKEALDIAK!!!

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



JAIONE GUEZMES *

Homosexualitatea eta lesbianismoa

1980. urtean homosexual eta lesbianen aldeko eguna ospatu zen lehen aldiz Euskadin. Data historiko honek New Yorken "Stonewall" eko gertakizuna gogorarazten digu, extorsiorik eta atxilotarik gabe bizitzeko eskubidea erreibindikatzeko, 1969. ekainaren 28an Gay komunitateako asto baten zehar poliziaren kontra edukitu zituen estiluak.

Beharrezkoa da sexualitateari etiketa guztiak kentzea, pertsona bezala, neska edo mutilen arteko harremanak garatzeko, galerazten diguten mugak kendu behar ditugu. Sexualitate aske baten, ez du eredurik finkatu beharrik, berezko eskubide honi, indibidualki garatzeko askatasuna utzi behar zaio.

Gainera, izatez... ez ohi gara... ez lesbianak, ez hete-

rosexualak ez eta bisexualak ere. Sexualki harremanak izateko gai jaiotzen omen gara. Norabide sexuala ez omen dago biologikoki zehaztuta, eredu sozio-kulturalak zehazten baikaitu. Eliza, eskola, familia bezalako erakundeak, komunikabideak, mezuak, imajinak eta hala dira, gizon eta emakumeen arteko harremanak sistematikoki normalizatzen dituztenak eta berria anormalizatzen, gaitortzen edo pekatarizatzen, ohizkotik irteeratu den guztiari.

Emakume eta gizakumeoi sozialki jartzen dizkiguten funtzioak medio direlarik, gure bizitza erregulatzen duten jokaera eta rol ezberdin batzuk finkatzen dira.

Afektibo-sexual erlazioen arloan ere berdina gertatzen da eta era honetara guz-

tiz mugatua gelditzen da jokatutako sexual eredu bakar batetara: eredu heterosexual zapaltzailea (gizakiak sortua eta hortara txintxilikatu), reproduktzioa, sexualitatearekin lotuta dagoen eredu sexuala inposatuz. Penetrazioa erlazio sexual osoa gero bat bezala ikusiaz eta familia barruan kokatuz.

Ilusioak eta ahaleginak bateratu behar dira, sexualitate zuzenak eta okerrak, onak eta txarrak, lejitimoak eta ilejitimoak bezalako kontzeptuak desagertu daitezzen. Hau da, sexualitate ezberdintasun eta atsegin leku bilaka dadin.

Denok maitatu, alkarrekin bizi, gozatu, maitatuak izan eta bizirik sentitu beharra dugu. Baina... diskriminazioa eta intolerantzia dira gizarte honen jarrera laburtu ditzakeen bi hitzak, adierazpen sexual desberdinei dagokionez, beste batzuen artean ere jarrera lesbika edo homosexualetan, nahiz eta homosexualitatea edo lesbianismoa mundua bera bezain zaharrak izan. Eta azken aldiko azterketa soziologikoen hiru emakume edo gizakumetatik betek, bizitzan zehar, esperientzia lesbika edo homosexualak izan dituztela adierazten duten.

Pertsonak askatasun osoz bere sexualitatea erabili dezala erreibindikatzen dugu eta edozelako harreman afektibo-sexuala aukeratzea defendatzen dugu, gure herriaren askatasun indibidual eta kolektiboaren barruan kokatua.

* EGIZANEGO PARTAIDEA

USTEAK USTE

ZINEMARA

Badirudi gaur egun, teorien behintzat, euskara arlo guztietara edo gehienera zabalduta dela, hau da, badaukagula aukera, nahi izanez gero, euskara hutsean bizitzeko.

Baina bada kezkatzen nauen arlo bat: aisialdia, eta aisialdiaren barruan, zehaztuz, zinema. Hemen bai ez dugula edozein pelikula komertzial euskaraz ikusteko aukerarik, eta betidanik horrela izan denez, badirudi neurri baten onartzen dugula edota ohitu egin garela.

Dena dela, nire belaunaldiko jendeak badakigu euskaraz bizitzeko aukera poliki poliki lortuaz goazen zerbait dela, eta nik esango nuke hemen badugula eronka bat. Baina eronka hori erabakitzen den bitartean eta gai honen inguruan badago nire ustez konponbide azkarragoa behar duen puntu bat: umei zuzendutako pelikulak.

Egia esan, ez dago umeak zinemara eramateko aukera handirik. Baina noiz behinka besterik ez bada ere, umea zinemara eraman nahi baduzu, erdara hutsean dagoen pelikula bat ikustera izan beharko da, hau da, ume askok ulertuko ez duen pelikula bat edota erdizpurdiz besterik ulertuko ez duena. Eta orduan bi gauza gerta daitezke: umeak gehiago zinemara joaterik ez nahi izatea, edo ohitzea eta umeumetatik zinema erdara hutsean funtzionatzen duen zerbait dela onartzea. Eta nik galdetzen dut: hain zaila al da pelikula bat euskaratzea umeentzat diren pelikulak ere ez euskaratzeko?

AMAIA JAUREGI-ARRABURU

BIONA

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

BLUSAK OSAGARRIAK POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecentoeskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

DENDARABA Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ



Ikastetxe honetan egongo dira oporretan eta lanean AEDko hiru txandetakoak.

Igandean hasiko da Kanbon AEDren auzolandegia

Igande honetan irtengo du Kanboruntz, Lapurdiruntz, AEDk antolatutako auzolandegiko lehen neska-mutil txandak. Abuztuaren erdira arte, Seaska Iparraldeko ikastolen elkarteak Kanbon duen Xalbador Ikastegian egiten ari diren lanetan kolaboratuko dute AEDkoek. Igandean, 13 lagun (zazpi neska eta sei mutil) izango dira joango direnak, baina baliteke oraindik asteburuan beste norbait apuntatzea.

Lehen txanda hau uztailearen 4tik 18ra luzatuko da. Bigarrena 18tik abuztuaren 1era eta azkena ordutik abuztuaren 15era. Bigarren txandan oraingoz zortzi neska daude apuntatuta, eta AEDtik oraindik jendea behar dute. Batez ere, errepikatu digute, lanbideren batean (iturgin, elektrizista, arotz...) dakien jendea behar da, Xalbador Ikastegiko lanetan halakoak behar baitira. Hirugarren txandarako hiru arotz, soldatzaile bat eta igeltsero bat lortu dituzte, baina bigarrenean hutsuneren bat badago oraindik. Dena den,

AEDtik komentatu digutenez, "espezialistak bai, baina peoientzat ere badago lana".

Xalbador Ikastegia da Iparralde osoan irakaskuntza ertaina euskaraz eskaintzen duen zentro bakarra, administrazio frantziarrak jartzen dituen traba guztien kontra lanean diharduena. Aste honetan, adibidez, baxoa (Frantziako selektibitatea) euskaraz egiteko eskubide galerazi diete ikastegiko eskal ikasleei.

Ikastetxea zabaltzeko lanetan ari dira, eta horretan gurasoak berak dira langileak. Jardinak garbitu eta lautu, geletan tabikeak jaso, lurrak baldosatu... Badago zer eginik, baina aisialdirako aukera ere izango dute auzolandegira doazenek. Denbora liberako, rafting egitera irteera bat, Irulegi irratian ikustaldia, Erramun Martikorena kantari eta artzainarekin egoteko Baigorriara bisita, eta mendi-irteerak antolatu ditu AEDk, besteak beste. Horrez gain, Seaskakoek ere ekintza bereziak antolatu dituzte arrasatearrentzat.

Enpresa berriztatzaileak

Enpresa Berriztatzaileen Zentro bat izango du Arrasatek datorren irailetik aurrera. Eskola Politeknikoaren baitan sortutako Saiolan zentro enpresa-sortzaitetik gorpuztuko da zentro berria. Oraindik hastapenetan dago zentroa, eta izena ere ez dago finkatuta. Oraingoz Enpresa Berriztatzaileen Zentroaren erdarazko siglekin, CEI delakoekin, izendatzen da proiektua. Zentroaren funtzioak honakoak izango dira: enpresa berriak sortzea, orain esistitzen direnak zabaltzea eta hedatzea eta kompetitibitatea handitzea. Printzipioz, ideia berriak jasotzea, eta horiek garatzen laguntzea izango da Zentroaren zeregina. Beti ere, ideia berriztatzaileak eta etorkizuneko inizatibak bultzatuko dira batipat, aberastasun sorkuntza hortik etorriko baita, bizi dugun ekonomiaren aldaketa giro honetan.

Goier programari laguntza

Udal Gobernu Batzordeak Goier proiektuarentzat milioi bat PTako dirulaguntza onartu zuen joan den astean. Eskola Politeknikoaren programa bat da Goier, atzerriko unibertsitatekin elkarlanean ikasleak kanpora bidaltzeko. Datorren ikasturtean 24 beka emango ditu Goierrek.

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

Basabe jatetxea

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoak: 79 91 84 / 77 07 94

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Euskarazko beste komunikabide hau sortzeko proiektua ARKOk azaldu dio Udalari.

Euskarazko irratia rentzako frekuentzia eskaera

Arrasateko Udalak irradi frekuentzia baten eskaria egingo dio Eusko Jaurlaritzari, aste honetako plenoan erabaki zenez. Arrasaten euskarazko irradi bat martxan jartzeko proiektua ARKOk (Arrasate Komunikabideak elkarte) aurkeztu zion Udalari, programazio posiblearen diseinua eta guzti.

Udaleko euskara batzordetik pasa zen gaia, eta handik iritsi zen plenora. Irrati hori martxan jartzeko lehen urratsa emititzeko frekuentzia baimena lortzea da, eta udalari dagokio hori. Aldi berean, plenoak irratia- ren proiektuan lan egiten hasteko bi pertsona kontratatzea, eta alkateari proiektuaren in-


guruan hitzarmenak sinatzeko baimena ematea onartu zen. "Euskal irradi batek euskararen normalizaziorako izan dezakeen eragina" kontuan hartzekoa dela zioen onartutako erabakiaren testuak.

Proposamenak HB, EAJ eta EAko botoekin egin zuen aurrera, eta PSOEn aurkako botoekin (EUEko zinegotzia ez zen plenoan egon). Sozialistek adierazi zuten ez daude ados euskarazko komunikabide elebakarrak egitearekin. Maiatzean izandako aurrekontuen inguruko plenoan, ARRASATE PRESSEN eta ATB-n gaztelania sar zedin ere eskatu zuten sozialistek.

Udal funtzionariak Osakidetzara

Udal funtzionariak Osakidetzako osasun asistentzian eta Gizarte Segurantzako errejimen orokorrean integratuko dira uztailean. Horrela amaituko zaie funtzionariei, orain arte Sasfal mutualitateak eskaintzen zien asistentzia berezitua. Asteartean izandako udal plenoan, langileen ordezkariak Sasfaleko kuoten gainkarga euren ordaindoko zutela adierazi zuten, udalak ez zuela gastu gehigarririk izango, baina hala ere, funtzionarien jarrera EAJk eta EAK bakarrik bultzatu zuten. HBk eta PSOEk Osakidetzako integratzearen alde bozkatu zuten eta proposamen hori nagusitu zen.

Biharamunean, udaletxe-ko langileen asanbladak agiri gogor bat kaleratu zuen PSOE eta HBren jarrera kritikatzeko. Agiri horretan salatzen dutenez, alderdi horietako zinegotzietatik "langilegoaren gehien- goaren nahia ez dute errespetatzen".



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



Ikastetxearen goiko solairuan daude okupatutako etxebizitzaak.

Okupak ez dira borondatez joango Ferixalekutik

Ferixalekuko ikastetxeko etxe-okupatzaileak pisu horiek hustu beharreko epea bete da dagoeneko. Asteazkena zuten azken eguna, ostegunean hastekoak baitziren ikastetxea goitik behera eraberritzeko obrak (SFX ikastolako irakaskuntza ertaina kokatuko da bertan). Hala ere, egun batzuz luzatu daiteke egoera, bertan bizi diren eskolako kontserje eta irakasleak ere ez baitira oraindik udalak utzi dien etxetara trasladatu. Okupatzaileek, bestetik, etxeak ez dituztela borondatez utziko iragarri dute.

Joan den astearteko udalbatza edo plenoan, okupatzaileek desalojoa ez egiteko

eskatu zuten mozio batzen bitartez. Mozioan, desalojoa ez egitea eskatu zuten, eraikuntza udalaren esku gera dadila, eta eraberritu bai, baina baliabiderik gabeko pertsonentzako bizilekuak egiteko eraberritu dadila eskatu zuten. Ferixalekuan ikastola instalatzeko premia zalantzan jarri zuten, eta udalak lokalak eduki badauzkala salatu zuten okupatzaileek plenoan, batzuetan espekulatzeko. Xabier Zubizarreta alkateak ukatu egin zuen udalak espekulatzaren duenik eta tamalez gazteen arazoa ezin dezaketela konpondu adierazi zuten. Bozketan, plenoak atzera bota zuten mozioa.

Selektibitateko emaitzak

Arrasateko ikastetxeetatik selektibitateko azterketa egitera aurkeztu ziren gehienek gaintitu egin dute unibertsitatean sartzeko eskatzen den froga. Institutoan, euskal adarretik 30 gaztek egin zuten azterketa, eta bat bakarra geratu da gaintitzeke. Gaztelaniazko lerroan, 60 aurkeztu ziren, eta 11k ez dute gaintitu. San Viator ikastetxetik, gaztelania eta euskarazkoen artean 63 aurkeztu ziren, eta ikasle bakarra izan da gaintitu ez duena. Irailean beste aukera bat izango dute oraingoan kale egin dutenek.

Aurtengo erroldako zerrendak

1993ko urtarrilrko dataz berriztutako udal errolda udaletxeko arkupeetan dago ikusgai jendearentzat. Okerrak konprobatu eta zuzenketak egiteko jarri dira publikoaren esku errolda edo zentsoko datuak. Uztailaren 7a arte dago konprobazio hauek egiteko epea.

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheka Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88

ARRASATE



- Garbitasun orokorraketa mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

TXOKO TABERNA

**Cure berezitasunak pintxo
eta mokau gozoak**

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

San Juanetan kanpoan egon edo jai gogoa dutenentzat, inguruko herrietan ere aurrera jarraitzen dute jai batzuk: astean zehar San Pedroak izan dira Eskoriatzan; asteburuan Elgeta eta Aramaion ere jaiak ospatuko dira. Animatu eta hurbildu jai girora!

Eguzkia eta tenperatura epel epelak ditagu nagusi azken egun hauetan. Musakolako Kiroldegian zabalik daude kanpoko igerilekuak eta jendez gainezka egon dira gainera. Eguzkia eta bainu eder bat hartzeko aukerarik onena. Aprobetxa ezazu!



AEDk San Juanetako jaietan zabalik izan duen Euskal Tonbolan azken zozketa bat egin zen. Honako hauek izan dira zenbaki sarituak: **4.389a** euki du tonbolak eta beste **2.849a** kanping bizikleta, **2.849a** denda eta **6.319a** lapiko jokuak. Arrakasta ezin hobea egi du tonbolak eta beste herri batzutan ere jartzeko asmotan dabilzala entzun dugu.



EFELDE

EFELDE

Virtu eta Ludo pasa den maiatzaren 22an ezkondu ziren eta **Mejiko eta Cancun** inguruan egon dira ezkon bidaian. **Alfredo Meabe eta Mari Karmen Etxandia** atxabaltarra maiatzaren 1ean ezkondu ziren. Zorionak!

URRATS
AHOLKULARITZA
 GARIBAI, 3
 Tfnoa: 79 87 74
 ARRASATE

ARTEA
 Eskulanak eta lientzoak
 ENMARKAZIOAK
 Laminak, Izpiluak,
 Margoak
 Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
 ARRASATE

Begoña
 lurrindegia
 Drogeria
 Jostailuak
 Opariak
 Gipuzkoa Etorb. 33,
 Musakola Auzoa,
 Tfnoa: 79 03 73

Erdiko kale. 79 19 37
LEA
 Ferrerias. 79 87 62

IZEN PROPIOAK



“Moriko” basurdea etxekotzat dute Aramaioako Barajuengo Solobarri baserrikoek. Orain dela urtebete ekarri zuten baserrira eta txakurra

bezala ibiltzen da. Momentuz ez die inolako arazorik eman, ondo portatu da. Aurrerantzean ikusi behar.

Angel Azkarraga eta Margari Larzangurenek urrezko eztaiak ospatu zituzten ekainaren 10ean. Meza Santa Agedan eta bazkaria Etxe Berrin egin zuten. Zortzi seme-alaba, 15 iloba, suin-errainak, anai-arrebak... bildu ziren. Zorionak eta urte askotarako!



● Ekainaren 20an burututako pintura lehiaketan honako hauek jaso zuten saria: lehenengoa **Juan Ramon Perezek**, bigarrena **Jokin Telleriak**, hirugarrena **Jon Andoni Urisabélek**, eta **Iñaki Ribierek** eta **Mikel Balanzategik** arrasatearrek ere saria jaso zuten. Gazteen mailan: **Gorka Zubizarretak**, **Gorka Unzuetak**, **Xabier Ezkibelek** eta **Unai Azkaretek**. Maila honetan **Iñaki Mayon** arrasatearrak ere saria jaso zuen. **Agustin Martinez** bilbotarrari beterraniako saria eman zitzaion.

● Aurtengo San Juanetako makailu lehiaketan, **Agustin Allendek**, **Egipe** elkarte-koak lortu zuen lehen saria. Bigarren **Txalaparta** elkarteko **Jesus Mari Jimenez** eta hirugarren **Leintze** elkarteko **Valentin Moreno**. Eta tortilla lehiaketan, berriz, **Mikel Arkauz** eta **Beñat Olabe** izan ziren irabazleak. Bigarrenak **Amaia** eta **Aran-txa** eta hirugarrenak **Iosu** eta **Kerman**.

● San Juanetan Arrasateko jubilatatu nagusienak omendu ziren: 100 urteko **Isidora Moreno** eta 93 urteko **Cadido Moraleja**.

● **Kaiku** taldeko **Agustin Sagasti** bizkaitarrak irabazi zuen Arrasateko 55. San Juan txirrindulari saria. Lehen txirrindulari arrasatearra **Andoni Garcia** izan zen.

M
A

Altzariak
Diseinua
Apainketa

ARENAZA

Bizkaia, 1 ARETXABAETA
Tfnoa: 79 08 07

IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

beatriz

oinetakoak eta
poltsak


Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikulua

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

Uztailak 4 IURRETA
EUSKALDUNON
JAIJA 93



eman arnasa

EUSKALDUNON Egunkaria-ri

● *Lourdes Romano*

Leintz bailara, eskualde turistikoa

Lourdes Romano oñatiarak dauka Deba Garaian turismoa sustatzeko Mankomunitateak sortu duen planaren ardura. Lehenago, Oñatiko turismo bulegoan ibili da lanean. Arrasate eta inguruaren erakargarritasunean fede osoa daukan emakumea dugu.

— Ze baliabide turistiko dauzka Arrasate eta inguruak?

— Arrasatek beti izan du turismoa industrialia, orain arte ez dena kontsideratu turismo arlo bat bezala. Baina garbi dago kooperatiben mundua ezagutzera jende asko etortzen dela. Gertatzen dena da alde egiten dutela hemendik lehenbailehen. Euron eginkizunak egin eta gero, lotara Gasteizera, Zumarragara edo inguruetara joaten dira, ez dira hemen gelditzen. Azpiegitura aldetik alojamendu egokirik ez daukagulako da hori. Industria munduan ibiltzen den jendea normalean oso exigentea da. Gero, inguruak ze baliabide dauzkan? Asko. Guk hondartzarik ez daukagu. Orduan, herri bakoitzak

daukan berezitasuna aurkitu behar dugu. Gatzaga ondo mantentzen den erdi-aroko herri bat da, Eskoriatzak etnografia arloan badauka zer esanik, Aretxabaletak ere Urkuluko pantanoarekin, gero Oñati... Denek daukate zerbait, hor daude eta orain arte ez dira aprobetxatu.

— Nola sortu zen turismoa sustatzeko plan hau?

— Gai hau turismo kontzeptua aldatu delako sortu zen. Orain turismo aktiboa esistitzen da, kultura eta ingurugiroarekin lotuta. Baina beste aldetik, Oñatiko turismo bulegotik konturatu nintzen eskaera bat badagoela. Oñati oso motz gelditzen da. Jendeak ez du kostaldea bakarrik nahi, beste zerbait eskatzen du eta honela hasi genuen lan hau.

— Zein momentutan dago plana?

— Programan bi zati duede. Batetik, epe luze edo erdira egin behar diren proposamenak, eta horietan ari naiz ni. Martxoan hasi zen estudioa eta datorren urteko urtarriean amaituko da. Hortik proposa-



menak aterako dira. Ez dakit gero aurrera jarraituko duten ala ez, baina behintzat hori gidoi bat izango da aurrera jarraitzeko. Ez genuen nahi bakoitza bere kasa gauzak egiten hastea, horregatik hasi gara plan bat egiten. Bafzuek pentsatuko dute denbora galteza dela, baina uste dugu gidoi bat egon behar dela eta jarraitu egin behar zaiola.

— Enplegua eta enpresak sor daitezke turismoaren inguruan?

— Bai. Gure planteamenduetan dago hori. Turismoa ez da turistentzat bakarrik. Planteatzen duguna ingurua hobetzea da: ingurugiro, ondarea erreku-peratu. Hori, bertako biztanleentzat lehenengo, eta gero, etorriko da jendea. Dena ondo txukun bada, gero, jendea etorriko da. Oso garbi ikusten dut enplegua

egongo dela. Ja sortu da enpresa bat turismo arlorako Oñatin. Eta nire plangintzan badut beste proposamen bat: bertako produktuak bultzatzea, artisautza. Hona etortzen denak ez dauka zer erosirik, ezin du dirurik gastatu. Lehen bazeuden: banastagileak, zeramika. Horiak denak galdu egin dira. Berrito bultzatu behar dira. Jendeak Toledon egindako zeramika erosten du. Orduan, zergatik ez dugu hemen egiten? Horren inguruan sortuko dira enpleguak.

— Alojamendua arazoa da, ezta?

— Izugarria, bai. Kalitateko alojamendurik ez dago. Eta kanping edo albergerik ere ez. Daudenak erdi mailakoak dira. Planak badaude, eta alojamenduen eskaintza dibertsifikatu behar dugu. Gure asmoa Gatzagako XVIII. mendeko jauregi batean hotel bat egitea da, kalitatezkoa. Kanping edo antzekoen eskaintza ere egin behar da. Guretzat egokiena etxe txikiak dira, ondarea erreku-peratzea, eta hor kokatu hotelak, hotel txikiak, hamaika gelakoak edo, ez gehiago.

● **“Hona etortzen denak ez dauka zer erosi, zertan gastatu dirua; berriro bultzatu behar dugu artisautza”**

San Juan parrokia


Herriko eraikuntza zaharrena berritzekotan

Luis Fernandez

San Juan Bataiatzailearen eliza, Getariako elizarekin bat, Gipuzkoako Gotikoko aztarnarik zaharrena dena, eraberritzen hasiko dira aurten. Arkitektura eta historia bitxi hau nahiko ahaztuta egon da Arrasaten, baina herritar talde batek, Jose Mari Astigarraga parrokoaren bultzadaz, eraberritzeko egitasmoa landu du.

Konpontze lanak abuztuan ziren hastekoak, baina atzeratu egingo dira beharbada. Hala ere, negua baino lehenago hasteko borondatea dago, eta hasi, teilatutik hasiko dira. Teilatua berrizten denean, elizak itxura erabat desberdina izango du: gaur egun, teilatu zabal batek elizaren jatorrizko estruktura estali egiten du. Goitik hasteak badu arrazoirik: teilatuetan itogin handiak daude, eta hezetasunak kalte handia egin du bobedetan. Euri-jasa handi bat izaten denean nahiko kaskar ibiltzen da teilatua ura bideratzeko. Elizak jasaten duen beste "zaparrada" bat, egurrezko atean jaietan txiza egiten duten hainbat jenderena da, parrokoa kexu denez, baina hori ez da eraberritze arazoa, jendearen portaerarena baizik.

Berrikuntzaren ostean, elizaren parte nagusiak gurutze bat osatzen duela ikusiko da,



Aurten hasiko diren lanak, goitik, teilatutik hasiko dituzte, hantxe bait dago egoera kaskarrena.

eta alboetara, teilatu baxuagoak egongo dira. Konponketak burutu ostean, elizaren jatorrizko itxura berreskuratu egingo da hein handi batean. Izan ere, estruktura dena, XIV. mendekoa kontserbatzen du elizak. Getariakoak, aldiz, garai berekoa den arren, gehikuntza arkitektoniko berriago ugari dauzka.

Oso dokumentu gutxi dago elizaren historiari, baina jakin badakigu 1340 urtean hasi zirela egiten, eta 1355 urterako amaituta egon zitekeela, orduan Udala, Uribarri, Garagartza eta Santa Agedako elizak parrokiari lotu baitzitzaizkion. Mondragoeko erreketan (1448), eliza ere erre zutela aipatzen du Gari-

baik bere kronikan, baina orduko kalteak norainokoak izan ziren ez dago argi. Duda barik, Arrasateko eraikuntzarik zaharrena da.

KULTUR ARAZOA

Duela bederatzi urte, Jose Mari Astigarraga abade elgoibartarra Arrasatera iritsi zenean, elizaren egoera tris-



Getariakoakin bat, XIV. mendeko Gipuzkoako gotiko bakarra da San Juan Bataiatzailearen eliza.

teaz konturatu eta zerbait egin behar zela pentsatu zuen parroko berriak. Aldarea txukundu, instalazio elektrikoa aldatu (aurrekoarekin sute arrisku handia zegoen), audifonia sartu... “Lan horietan”, kontatzen du parrokoak, “ikusitako nuen jendeak bazeukala gogoia, medioak ez baina ilusioa bai, eliza hobetzeko”.

Bailarako beste bi elizaren konponketa (Dorletakoa eta Sanbaleixoko ermita) bultzatzen egon zen Astigarraga, artzapeza ere bazenez. Garai hartan, Diputazioarekin harremanak hestutu zituen eta San Juan Bataiatzailean lan egiteko aukera ikusi zuen. “Uste zuten ermitarekin eta, karamelua eman, eta konformatuko ginela baina...”, komentatzen du umorez.

Konponketaren lehen urratsa, Diputazioaren enkarguz egindako aurreproiektu bat izan zen, Mikel Lasa arkitektoarena. Ondoren, talde eragile bat sortzea izan zen. 14 lagun bildu ziren hasiera batean, herriko jende ezaguna, eta horrek proiektu osoa egin du, bost urterako plangintza luze bat, eta izen bat ere hartu du: SJB Batzorde Eragilea.

Talde honen beharra ha-

sieratik ikusten zuen parrokoak. “Ez da kristauen arazoa bakarrik, kulturalki lotsa emateko arazoa zen, Gipuzkoako gotiko zaharrena izanda”. Horren haritik sortutako taldea “herrikoia, kolore politikorik gabea, oso irekia partaideen aldetik, elkarte eta lagun-taldeak biltzeko, eta herrigintzan esperiantza daukan jendez osatuta” izan behar zuen, eta helburu hori lortu da, Astigarragaren iritziz.

FINANTZAKETA

Batzorde Eragilearen enkarguz, Mikel Lasak proiektu osoa erredaktatu zuen, eta lehen faserako markatu zuen aurrekontua: 81 milioi.

Aurrekontu horretarako aportazioak, hiru herenetan egin daitezten nahi izan du Batzordeak. Udaletxeak onartu zuen bere herena aurtengo aurrekontuetan, nahiz eta Herri Batasunak aurka bozkatu zuen, beste herri batzuetan

Diputazioak heren bat baino gehiago aportatu duenez, hemen ere Aldundiari inplikazio handiagoa eskatu behar zitzaizkion. Diputazioarekin izandako negoziazioak, aurrekontuen beste heren bat betetzeko, San Juan jaien inguruan burutu dira, emaitza onarekin. Azken herena herritarren esku geratuko da, eta diru hori biltzen hasteko egitasmo bat prestatzen ari da orain SJB Batzorde Eragilea.

Erretaula eta sitsa

Laster berriztatze lanak ezagutuko dituen beste eliza bat San Frantziskokoa da. Kasu honetan, XVII. mendeko erretaula ederra da arriskutan dagoena, sitsak janda. Egun hauetan, Diputazioko Arteleku erakundeko bi erreatauzaile, Xabier Martiarena eta Regina Gomez, egon dira erretaularen egoera aztertzen, gaitza kontrolatzeko ikerketa bat egiten.

“Azpian erdi-jana dago”, komentatzen digu Martiarenak. “Zaila da ikustea, baina zuloa egitean pipiaren hautsa ateratzen da, eta barruan parte batzuk ondo daude baina beste batzuk txarto. Habe eta langa batzuk kendu eta aldatu egin beharko dira”. Intsektu xilofago hauek ezabatzen bideak badaude: lehenbizi fumigatu eta gero pozoia kapa bat eman, itzul ez daitezten. Hala ere, Artelekuko lana ez da hori. Orain, ikerketa egin behar dute eta gero, lehiaketa publikoz, etxeren bati enkargatu beharko zaio lana. Erretaula hau 1695an amaitu zen, eta hura baino lehenago paretean marraztutako irudiak zeuden, oraindik orain egurraren atzean daudenak, erreatauzaileek frogatu ahal izan dutenez.



Martiarena erreatauzailea.



Kirol taldeaz gain, lagun talde polita dira Igeriketakoak.

Igeri taldea: emaitzak bai, ondo pasatu ere bai

Arrasateko Igeri Taldeak hiru domina ekarri zituen joan den asteburuan Bartzelonan izandako aletadun igeriketa txapelketa estatiletik. Itziar Kortazar 14 urtekoak 100 metro eskafandran urrea eta 50 metro *apnea* kategorian zilarra lortu zuen, eta Amaia Alvaro 15 urtekoak brontzea 400 metro eskafandran. 10 igerilari eta entrenatzaileak joan ziren Bartzelonara, eta bertan diziplina honek Arrasaten duen indarra erakutsi zuten.

Duela 10 urte hasi zen aletadun igeriketa Arrasaten inplantatzen, Luis Marin-en eskutik. Gaur egun, 85 bat igerilari dabilta taldean, baina erdiak edo egingo du aletadun igeriketa, gainerakoak ohizko igerike-

ta estiloetan aritzen dira bakarrik. Aletadunean dabiltzanek ere, igeri klasikoak ere egiten dute, bestela bizkarreko arazoak sor ditezkeela konprobatu da eta.

Bartzelonako arrakastak ez ziren asteburuko berri pozgarri bakarrak izan. Igeriketa klasikoan, 50 metroko frogaren batean 1. gelditu zen taldeko beste mutil bat, Haritz Arrieta. Horrez gain, Cartagenan egingo den prestakuntza *campus* batean tokia lortu du berriki Izadi Mondragon 11 urteko igerilari gazteak, 400 metrotan lortutako marka onengatik.

Dena den, Igeri Taldearen lana ez da garaipenetan bakarrik neurtzen. "Filosofia aldetik, gurean asko jolasa izaten da, multi-kirola

izaten dena; entrenatu bai, baina jolastu ere bai", esplikatzeko digu Mikel Morrasedek, 7 urtetik 12rainoko umeak entrenatzen dituenak. "Ludikotasuna lantzen dugu, bereziki nahi duguna kirolagatik ohitura eta gus-to bat hartzea da, emaitza onak badaude ondo, baina hori baino gehiago da".

Txikiekien egindako lan ludiko hori da Igeri Taldearen "kantera". 50 ume dabilta entrenatzen, nahiz eta orain udan, lasaiago dauden denboraldia ia amaitu denez. Morrasedekin batera, nagusien entrenatzaileak Juan Ignacio Errasti eta Alex Iturbe dira. Euren hurrengo erronka, igerilariak uztaillaren 25eko Getaria-Zarautz trabesiarako prestatzea.

FUTBOLA

Oporren aurretik, Mondraren garaipena

Mondrak garaipenaz itxi zuen denboraldia, 2.era igotzeko *play-off*-ean Escobedori 2-0 irabazita. *Play-off*-eko garaipen bakarra izan da hori, ez baitu taldeak oso paper ona egin. Esperientzia falta, denboraldiaren luzea eta lehen partiduan, Egues-en aurka (herri txiki batean ustez garrantzi bako talde baten aurka) 3-0 galdu izana, horiek dira denboraldi amaieraren esplikazioak. Harrezkero, igoera taldeko azken postuan egon da Mondra, aukera handirik gabe. Dena den, *play-off*-ean sartzearekin ondo beteta zeuden taldearen helburuak, aurreko urtean helburua kategorian mantentzea izan zen bezala.

Orain, uztaillaren 20a arte, opor labur batzuk, ondoren berriro entrenatzen hasteko. Tartean, direktibak du lana, hurrengo urterako taldea biribiltzen. Inaxio Garro kapitainak eta Julianek futbola utzi egin dute, eta dagoeneko ordezko bi jokalaririk fitxatu ditu Mondrak: Aloña Mendin jokatu izan duen Ramon Agirrezabal bergarra, eta Beasainen jokaturako Madinabeitia atxabaltarra. Gainerakoei dagokienez, aste honetan bertan kontratua luzatu dute Urzelai atezainak eta Morenok. Gainerakoekin hizketan ari dira zuzendaritzakoak, eta talde osoa nahiko lotuta dago dagoeneko.

**FELIPE
MADINA**

ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

HAURTXOA

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak


Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

PENALTIAK

● **Sanjuanak zirela eta, pelota desafioak jokatu ziren joan den larunbat arratsaldean Zaldibarko frontoian. Lehen partiduan, Isturiz eta Txispasek 22-13 irabazi zioten Txikuri eta Joseba Askasibbarri (azken honek Txikito de Benerasen ordezkatu zuen). Beste partiduan Karabias-Letona bikoteak 22-18 irabazi zion Barbero-Garitaonaindia bikoteari.**



Goi mendi eskalada ikastaroa

Besaide mendizale elkarteko bazkideek eskalada ikastaro batean prezio merketuan parte hartzeko aukera izango dute uztailean. Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak antolatu du goimendi eskalada ikastaro hau, eta uztailaren 10-11, eta 13-14ean egingo da kurtsiloa Frantziako Pirinioetako Midi D'Ossau eta Vignemale-n. Hastapen eta hobekuntza mailak emango dituzte ikastaro horretan. Ikastaroan parte hartzeko, federatu txartela behar da, atzerrirako suplementoarekin, eta prestakuntza fisiko egokia ere komeni da, Besaidekoek ohar batean azaldu dutenez.

● **Andoni Garcia txirrindularia, Pinturas Urretxu taldekoa, izan zen afizionatuentzako San Juan txirrindulari sarian sailkatutako lehen arrasatearra, eta trofeoa lortu zuen horregatik. Agustin Sagasti bizkaitarra nagusi zen frogan.**



JOSE LUIS EZKURRA, Mondrako presidentea

Denboraldiaz pozik?

Oso pozik, bai. Handia izan da, oso ona. Aurrekoa nahiko latza izan zen eta aurreko ekipo bera geunken. Lehen asmoa mantentzea zen, eta bigarrena play-off-era ailegatzeara. Eta horixe egin dugu.

OPOR PAREGABEAK!!!

- Iparraldea ezagutu.
- SEASKAri lagundu.
- Lagun berriak egin.
- Ibilaldiak, rafting-a...
- Iparraldeko jendea ezagutu.

Eta beste giro baten oporretako 15 egun pasa gura badituzu, **Auzolandegiak dira bilatzen ari zarena!**

Hiru txanda: Uztailaren 4tik 18ra.
18tik abuztuaren 1era.
Abuztuaren 1etik 15era.

Informazioa: AED elkarteak. Tfnoa: 77 12 28



● Lehen txandarako ere denboraz zaude!!!

“Gazteak martxan” IV. Argazki Lehiaketa


■ Partehartzaileak

Bi kategoria

- A) Deba Garaikoa 14-20 urte bitarteko gazteak.
- B) 21-35 urte bitartekoa edozein.

■ Sariak

- A) Kategoria: 1. 20.000 PTA
2. 10.000 PTA
- B) Kategoria: 1. 50.000 PTA
2. 35.000 PTA
3. 25.000 PTA
4. 20.000 PTA (Aurreko sarituen artean arrasatekorik egon ezean, 4. saria herri mailako lanik onenak jasoku luke).



■ Aurkezteko epea

Lanak aurkezteko epea urriaren 29an amaituko da



ARRASATEKO UDALA

UEUko ikastaroetan parte hartzeko bekak

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordeak, urtero bezala dirulaguntzak eskaintzen dizkie Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) udako ikastaroetan parte hartu nahi duten arrasatearrei. Ikastaroak Iruñean izango dira uztailaren 19tik 31ra.

Eskaerak **uztailaren 14a baino lehen** aurkeztu behar dira.


Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Euskara Zerbitzura.

Animazio Sozio-kulturala Aita Menni Ospitalean

Aita Menni Psikiatrikoak, "emakumezkoen Santa Ageda" izenez ezagunago denak, 515 gaixo ditu ingresaturik, gaixotasunaren arabera area edo unitate ezberdinetan. Egunko Ospitala, Burmuineko Zauriena eta Bergizarteratzekoa ere badu gainera, eta lagunduriko hiru etxebizitza ere bai Arrasaten.

Animazio sozio-kulturala 1988ko urrian hasi zen. Ordurarte puntualki eta jarraipenik gabe kontutan hartzen ziren zirenak, astialdiko okupazio terapeutikoa, irteeren bidez ingurune sozialarekin lotura izatea, jolas, jai eta denporapasako dimentsioa, festen ospakizun eta antzerki taldea sortzearen ondorioz kultur izaerako esperientziak lortzea, eta era horretako beste hainbat ekintza bilduaz joan dira eta izaera sozio-kulturalako programa zabal bat sortu eta egituratu da, Ospitalean dauden gaixoen posibilitateetara egokitua.

Gauegun, Arlo Klinikoe-tan eta Erreabilitazio Zerbitzuan burutzen den talde lanari esker, astialdi eta denbora liberako programak antola ditzakegu monitoreok. Horrekin batera, baita pertsonen euren garapen kulturalako parte hartze aktiboa bultzatzen duten heziketa eta kultura ihardunaldiak, Aisialdiko ohiturak eta komunitatean parte hartu eta integratzea ere.



Planteamendu teoriko hori, gure Kultura Gelan gauzatzen diren arte ikastaroetan burutzen da: hainbat ikastaro, kultur sustapen, irakurketa,

sukaldaritza, lorazaintza eta abarreko taldeak bultzatzea, intereseko gaiekin hitzaldiak antolatzea, musika, antzerkia, bideoa eta zinema, Ospitale guztirako Santamas, Gabon, Ihauteri eta Apirileko jaiak antolatzea eta Ezohizko Kultur Programak antolatzea.

Lan guzti horren helburua, gaixoen bizitza sozial eta kulturala normaltzea da. Hortik dator Arrasateko hainbat erakunderekin, Udala, Arrasate Musikal, Al Andaluz, EPA... edo inguruko Zaharren Egoitzetako antzerki talde edo abesbatzekin gero eta harreman estuagoa izatea, horrela Ospitalea gero eta irekiago dago, eta adibideak asko dira.

Ekitaldi guzti horiek, Aisialdiko gaiez teorikoki zein praktikoki eginiko erreflexio lan serio bati erantzuten diote. Kongresu eta Ihardunalditan parte hartzen dugu, beste profesional, erakunde eta Unibertsitate batzuekin esperientzia trukaketa egiten dugu eta ikerketa egin eta arlo honetako profesional berriak hezitzen dihardugu.

Bukatzeko, Aita Menni Ospitalea gure herrian dagoela esan nahi dizuegu eta beraz, ezagutu eta gure kultur ekintza, jai eta ospakizunetan parte hartu nahi duen edozeinentzat irekita dagoela.


**VICTOR LARRINAGA ETA
JOAQUINA SANCHEZ.
ANIMATZAILE
SOZIO-KULTURALAK**

(Erredakzioan itzulia)



Paz Manceras
Bitxitegia

Iturriotz, 7 bis. Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE



Santa Barbarako ermita tontorrean zegoen.

Arrasate edo Santa Barbara

1950 ingurura arte, Jasokundearen eguna Santa Barbaran ospatzen zen Plazan ospatu beharrean. Askotan bertan behera utzi behar izaten zen jaia, ekaitza zela eta, sasoiak halakoa izanik. Halakorik gertatuz gero, hurrengo domekan ospatzen zen askotan Letonak esaten duenez.

Goian aipatutako urtetik aurrera, euren jaitzat hartuta daukate Arrasatekoek hori, baina aurretik Gazteluondokoa izaten zen ingurune horretako jaia, eta Jasokunde eguneko afaritan oilarra jaia izaten zen ohitura.

Tolosako 4. Juntak, beste asko bezala, Santa Barbarako ermita botatzea agindu zuen eta herriak aurka egin zion horri. 1771an, Villafranca de Gaitan Kontea alkate zen garaian itxi egin zen, bota gabe.

Hogeitamar urte beranduago, berriz ireki zen, eta fundatzaileak utzitako ornamentu ermita eta gainerako berberekin ospatu zen meza. 1794an Konbentzio Frantseseko soldaduek hartu zuten eta Napoleonenek beranduago eta orduan profanaturik, betirako eta erabat desagertu zen orduantxe.

1796an Fantsesak kanporatu eta gero, ermita konpondu egin zuen herriak eta 1799ko abenduaren 3an bedeinkatu eta inauguratu egin zen. 1808 eta 1813 bitartean desagertu zen erabat, Independentziako gerratean zehar Frantsesek hartuta izan zutenean.

1861ko abuztuaren 13an Udal Plenoari idazki bat aurkeztu zion Monterongo Kontesak beste 88 sinadurarekin, ermita hori berriz eraiki zedin eskatuz, baina antza denez ideiak ez zuen aurrera egin eta ez zen eraiki.

SUTONDOAN


AZKUAGA-MENDIKO JENTILAK, MUSAKOLARRAK ETA GASTEIZTARRAK (XI)

Musakolarrek Otsori esan zioten desapiua estudiatu egin behar zela eta esateko arren anai Zankarroteri, hurrengo iluntzean bertan jeitsi zedila berengana bere behi pare eta emazte Otsandarekin, ondo konponduko zirela eta. Hau hilabete biko haurtxoa hazten zegoen garai hartan. Hurrengo gabeetan Arrasateko probalekuan saiatu ziren eta erabaki zuten Txixiriori erantzutea eurak ere gertu zeudela. Zankarrotek berak harriari heltzeko baimena izan balu, jokoa aurpegi ederragoa erakutsiko zuen; apusturako baldintzetan baino, itzai banarekin jokatzekoa zen eta itzai bakoitzak ittaurreko besterik ezin zezakeen egon.

Esaten zuenez, arabatarren idiak jokatu behar zuen lehenbizi. Honen idi gorriak gazteak, handiak, eraginak eta indartsuak ziren. Jentilaren idiek, berriz, haren ondoan, katu ar bi uzartuta ziruditen.

(Jarraituko du)

ARREGITAR TIBURTZIO



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65



1966. Aretxabaletako Ibarra zelaian.

Mondrak izan dituen futboleko ekipo guztietatik bat dugu aste honetako argazkikoa. 1966an ateratakoa da, Aretxabaletako Ibarra zelaian U.D.A.ren aurka jokatu zuten mutilak, garai hartan Mondra Club de Futboleko Jubenilen taldea.

Zutik ezkerretik hasita, **Jabier Abasolo, Jose Mari Zubillaga, Pablo Lopez,**

Iñaxio Kortabarria, Luis Mari Muruamendiaraz eta Juan Antonio Uribe.

Behean makurtuta ezkerretik eskumara, **Paulo Guzman, Pedro Pagoaga, Txomin Arzamendi, Juan Jose Balzategi eta Jose Luis Landa.**

Talde honetatik, bistan da, benetan jokalaria bikainak aterra dira.



Mondeo

M MUGARRI



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65

Etxebizitzak

- **Etxebizitza salgai edo alokairuan.** 90 m² despatxua jartzeko oso aproposa. Tfnoa: 79 64 50.
- **Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da.** Tfnoa: 79 45 74.
- **La Bastidan duplexa salgai.** Tfnoa: 79 65 39.
- **Peñiscolan apartamentu bungalow-a alokatzen da.** Hondartzatik gertu dago. Tfnoa: 27 01 37. Itziar.
- **Etxebizitza alokatzen da Donostian,** uztaila, abuztua eta baita ikasleentzat ikasturtean zehar ere. Tfnoak: 71 50 87 eta 71 4002.
- **Eskoriatzan etxebizitza amueblatua alokatzen dut.** Tfnoa: 79 87 26.
- **Garaje plaza bat alokatzen dut.** Tfnoa: 79 79 12.

Lana

- **Uztailean ere ingelesez.** Talde txikiak! Tfnoa: 79 24 59.
- **Loragintza ikasketak egin dituen norbait behar da** lorategi bat ordutza zaintzeko. Tfnoa: 79 44 47. Amaia.
- **OHoko klase partikularrak ematen dira uztailean.** Esperientziaduna naiz. Tfnoa: 79 60 16. Henar.
- **Ingeleseko eta frantsesezko klase partikularrak ematen dira uztailean.** Tfnoa: 79 47 90.

- **Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko neska behar da.** Kotxea beharrezkoa da. Tfnoa: 79 27 02.
- **Kontabilitateko klase partikularrak hartuko nituzke uztailean.** Tfnoa: 79 99 82. Maite.
- **Uztailean OHoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 69 41. Arantxa.
- **Uztailean OHoko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 05 59. Oskar.
- **Ekonometriako klase partikularrak ematen dira uztailean.** Tfnoa: 79 40 87. Miren.
- **Marrazketa teknikoko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 65 84. Leire.
- **Neska esperientziadunak umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 13 66. Arantxa.
- **Lizentziatu esperientziadunak ingeleseko klase partikularrak emango lituzke uztailean.** Tfnoa: 79 26 21. Ane.
- **Uztailean ingelesezko klase partikularrak ematen dira.** Dei egin goizetan 77 05 77 tfnora.

Salerosketak

- **Matrikula ingeleseko Kawasaki 550 GT 1983koa salgai.** 150.000 PTA. Tfnoa: 79 90 36. Richard.
- **Transformatutako Vanette furgoneta salgai.** Ohea, sukaldea, izozkailua, mahai, iturria etb. ditu. Tfnoa: 79 28 81.

- **Zeus markako bizikleta salgai.** 58. tailakoa. Oso egoera onean dago. Tfnoa: 79 94 71.
- **Renault Fuego GTX SS-T salgai.** Dei egin dena orduetan 79 73 90 tfnora.
- **Ezkontzeko soinekoa salgai,** buruko apaingarri eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motzaz. Neurriak: luzeera 165 zm. bularra 85 zm eta gerria 68 zm. Prezioa: 80.000 PTA. Probatzeko, dei egin 76 17 81 edo (945) 24 32 55 tfnora.
- **Fagor markako sukalde berria salgai.** Bi su eta bi elektriko dauzka. Gas naturalekin erabiltzeko. Oso prezio interesgarria. Tfnoa: 79 38 16. Gaueko 9etatik aurrera.
- **Ziklomotorra eta korredore bizikleta salgai.** la erabili gabeak. Prezio onean. Tfnoa: 78 10 41.
- **Citroën AX, GT hobekuntza askorekin salgai.** SS-AH. Tfnoa: 78 33 09.
- **Hiru berogailu, hiru** negua pasatzeko epelean nik saltzen ditut modu onean!
• **Kerosozko berogailu bat** "Corona FH 5540 S Big-Inventer" markakoa.
• **Butanozko bat** "Delonghi" markakoa.
• **Eta elektriko bat** "Delonghi Caldovelto" markakoa. Behar izanez gero, jo 78 05 72 tfnora. eta egingo xuagu/xonagu tratua.
- **Paseoko bi bizikleta salgai.** Egoera onean eta merke. Deitu 79 71 59 tfnora. Iñaki.

Aste Gazte

Ikastaroak

- **Zaldian ibiltzeko ikastaroak** Urkulun. Uztaila eta irailean. 2 astekoak, egunero ordubete. Goizez nahiz arratsalde. Matrikula langabetu eta ikasleentzako 6.000 PTA.
- **Adierazpen teknikak lantzeko ikastaroa.** 180 ordutakoa. Hezkide Eskolak antolatuta. Izen emateak: uztailearen 13ra arte.

Bekak

- **Eibarko Unibertsitate**

Laborala 93-94 ikasturterako egoitza beka. Ikasketak: injinaria, BBB, UBI, IEE eta LH. Epea: utailak 15.

- **Turismo beka.** A) Turismo ikasketak burutzeko, UBI eta selektibitatea dutenei zuzenduak. B) Ostalaritza arloan espezializazio ikasketak nahiz praktikak burutzeko, Unibertsitate titulazio dutenei zuzenduak. Epea: uztailek 19.
- **Kanpo Merkataritza arloan** prestatzeko beka. Ekonomi eta enpresa zientzie-

tan, zuzenbidea nahiz injinarian lizentziatutakoei zuzenduak. Epea: uztailek 26.

Udalekuak

- **Udala Ingurugiro Udalekuan** bi plaza daude uztailean bigarren hamabostaldirako. 14-17 urte bitartekoentzat. 15.000 PTA.

Lehiaketak

- **Portugaleteko Hiria IV.** Ipuin Lehiaketa. 14-30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Euskaraz nahiz gaztelera. Gai librea. 6-12 orrialde bitartekoak. Epea: uztailek 29.

"Zahartzarora ez da hain gauza txarra beste alternatiba bakarra zein den jabetzean"

MAURICE CHEVALIER




Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

Eugenio Uribarren

Izozkitegikoa



- **Izotzarekin ala barik?** Izotzarekin Gin Tonik-a bakarrik, beste dena barik.
- **Kutsadurak kezkatzen zaitu?** Beno, tamalez ia ia ohituta ere bagaude, ezta?
- **Sukaldari ona zara?** Baietz esaten dute.
- **Zeri buruzko ikastaroa egingo zenuke?** Orde-nagailuak erabiltzen ikasteko.
- **Zorte ona ematen dizun zenbakia?** Denak berdin samarreko zortea ematen didate.
- **Oporretan nora?** Tenez-era.
- **Etxekolanetan trebea zara?** Ez, horretan oso txarra naiz.
- **Abortoaren alde ala kontra?** Alde.
- **Egarria kentzeko, zer?** Ura, eta bixamona eukiz gero, txanpana.
- **Urrea ala zilarra?** Urrea.
- **Zer koloretako begiak dituzu?** Aldatu ez badira, urdinak.
- **Gidatzeko karnetik?** Bai, aspaldi atera nuen.
- **Udarako koktel bat?** Txanpana eta whiskyakin egingo nuke.
- **Noiz hartuko dituzue oporrak?** Uztailean ezkontzen naiz eta orduan hartuko ditut.
- **Eguzkia hartzea gustatzen?** Ez, bat ere ez.
- **Udarako kolore bat?** Urdina.
- **Beroa ala hotza aguantatzen duzu hobeto?** Biak berdin samar.
- **Gustokoa duzun gozokia?** "Borracho" pastela.
- **Jaietan hartzen duzu parte?** Gustatu asko gustatzen zaizkit, baina lan egitea tokatzen zait gehienetan.

BERTSOAK

Oporrak

1
Hondartza eta leku berriei egin nahi diet bisita kamara hartu ta izango naiz uda garaiko turista eguneroko eginbeharrak alde batera utzita Benidorm-era bidaiatzeko a ze aukera polita!

2
Autoa trastez bete ondoren bagoaz norabaitera atzerria da lehenik eta behin egiten dugun aukera joango gara Italiara, Londres edo Parisera ongi pasatu, itzuliko naiz husten denean kartera.

MAIDER OSA

ARTOLA KOMERTZIALA

Zerkaosteta, 3
Tfnoa: 79 14 40
ARRASATE

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



IKASTAROAK

Osasun laguntzailea
Psikiatria laguntzailea
Puerikultura
%90ak azterketak gainditu



IKASTAROAK

Pelukeria eta estetika
F.P. 1 Titulu Ofiziala

General Loma 4-3. GASTEIZ
Tfnoa: (945) 23 33 99



Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

GIZON ETA EMAKUMEAREN MODA



Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

Blanka Jauregi eta Kandi Fernandez Ingurugiro udalekuak prest!

Udalako Ingurugiro eskolak, Diputazioko Gazteria sailak eta Ingurugiro sailak eta Arrasateko Udaleko Gazteria sailak bultzaturik, uztailean zehar Ingurugiro udalekuak burutuko dira Udalako eskolan.

— Zer dira Ingurugiro udalekuak?

— Beno, aurreko urteetan antolatu ditugun auzolandegiak burutzeko ezintasunaren aurrean eta hainbat ekintza aurretik prestatuta eukita, pena eman zigun dena bertan behera uzteak. Horregatik, Diputazioak prestatuta zeukan programa baten barruan sartu ginen. Horren bidez, ekintzak aurrera eramatea eta finantziarioa lortu genuen. Diputazioak adinaren arabera banatzen du udalekuaren programa eta gu konkretuki udaleku espezialitatuetan sartu gara, 14 urtetik 17 urtera bitarteko gazteekin lan egiteko.

— Zer motatako ekintzak egingo dira udaleku hauetan?

— Ekintza mota desberdinak prestatu ditugu. Alde batetik eskola barruan burutuko direnak eta bestetik eskolaz kanpo egingo direnak. Eskola barruan, txabola hidrografiko bat eraikiko dugu,



ornitologian ere sartuko gara eta kabi batzuk erosi ditugu mundu horretan nolabait sartzeko, gero txori mota desberdinekin jarraitzeko. Eta hirugarrenez, maketa bat egiteko asmoa dugu. Gauza praktikoa hauek urtean zehar izango ditugun ekintzetan erabiliko ditugu. Eta bestalde, eskolaz kanpo egingo diren ekintzak ibilbideen bidez beteko ditugu batez ere: Akei, Kobateko harrobiak, Eskoriatzako museo eskola, Salinas de Añana, Nervion ibaia... bisitatuko dugu. Gainera, ingurugiro heziketa kontutan hartuz, jostailuak egiteko tailerrak, paper birziklatuaren tailerrak... Horretaz gain, oporren usaina emateko eta, gazteen aisaldirako beste gauza batzuk ere antolatu ditugu: igeritokira joateko pase libre, Udalak antola-

tzen dituen kultur ekintzetan sarrera libre eta abar.

— Zenbat txanda bereiztuko dira?

— Bi txanda izango dira: uztailaren lehen hasi zen lehena eta datorren 15ean bukatuko da eta bigarrena 16an hasi eta 30ean bukatu. Jadanik bi txandak beteta daude eta Gipuzkoako herri desberdinetako gazteak etorriko direla esan digute. Konkretuki, lehen txandan 6 arrasatear daude. Bestalde, txanda bakoitzean 25 gazte egongo dira.

— Zeintzuk dira udaleku hauetan bete nahi diren helburuak?

— Gaztea era ludiko batez ingurugiro heziketara hurbiltzea da beharbada lortu nahi den helbururik inportanteena. Eta horretaz gain, oporraldi desberdinak eskaintzen dira.

LABURRAK

“Adibidez” erako kartel lehiaketa

HIES Ekimenak “Adibidez” erakusketa erraldoirako kartel iragarlearen lehiaketa antolatu du. “Adibidez” proiektu zabala eta bitxia denez, kartel iragarleak ere originala izan beharko du. Horregatik, ez dira zehaztu kartel iragarlearen teknika ez gaia, egileak nahi duena erabil dezake. Interesatu guztiok HIES Ekimenak Arrasate Pasealekuan duen bulegotik pasa zaitzekete edo 79 26 99 telefonora deitu.

“Gazteak martxan” argazki lehiaketa

ASA argazki taldeak eta Udaleko gazte-zerbitzuak, “Gazteak martxan” IV. argazki lehiaketa antolatu dute. Deba Garaiko 14 urtetik 35ra bitarteko edozeinek har dezake parte argazki lehiaketa honetan. Zuri-beltzez nahiz koloretan aurkez daitezke argazkiak. Urriaren 29a baino lehen entregatu beharko dira Gazte Zerbitzuan. Sarituen izenak azaroaren 5ean ezagutuko dira. Sariak, lehen kategorian: 20.000 PTA, 10.000 PTA, eta bigarrenean: 50.000 PTA, 35.000 PTA, 25.000 PTA eta 20.000 PTA.


**LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
ZELULOLIPOLISIA.**

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABAETA TFNOA: 79 13 54

**Elektroinjekzio
Zerbitzua**



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

**Hilbera
kafetegia**

Urbarri Etorbidea
ARRASATE

ASTRONOMIA

EXTRALURTARRAK

Orain arte, Lurra, Eguzkia, Ilargia eta planeten tamainuaz arduratu gara batez ere, baina honetaz aparte ba daude unibertsoan beste gauza bitxi batzuk; izaki bizidunak alegia. Gure lurrean behintzat, landareak, animaliak eta gizakiak bizi gara.

Dakizuenek askotan esaten da, posible dela beste planeta batzuetan bizidunak izatea.

Iritzi desberdin asko daude guzti horri buruz, martitztarrek bisitatu gaituztela, etabar.

Egunkarietan, telebistako programa batzuetan, eta baita zientzilarik batzuen hitzetan ere, entzun eta ikusten dugu izaki extralurtarren bisiten aztarnak eta frogak ba daudela, eta "o.v.n.i." famatuak ia egunero ibiltzen direla gure teilatu gainean.

Gure iritzia hurrengo idazlanetan emango dizuegu, baina zein da zue-na?

ERNEST BORN



38 kantarik osatzen dute gaur egun Eskoriatzako abesbatza.

Gorosarri: hamar urte betetzeko grabaketa bat

Larunbat honetan Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak bere X. urteurrena ospatzeko, kontzertu berezia eskainiko du. 1983ko hasiera sortu zen Gorosarri abesbatza, eta Eskoriatzak musika arloan aspalditik duen tradizioaren lekukoa hartu du. Gaur egun, 38-40 abeslarik kantatzen dute Gorosarrin, eta horietatik asko Arrasatekoak dira, euren artean Rafa Agirre abesbatzeko lehendakaria.

Izena Eskoriatzako musikagile handi batengandik hartu zuen abesbatzak: Eduardo Gorosarri. Apaiz eta konpositore hau Bilboko Begoñako basilikako organujolea izan zen, eta konpositore gisa txisturako lanak idatzi zituen batipat. 1989an ospatu zen bere jaiotzaren mendeurrena

eta hango ekintzetan parte hartu zuen abesbatzak. Gorosarri koralak parrokiako abesbatza du oinarri, eta horretaz gain, "puntako musika banda eta txistulari bandak dauzka Eskoriatzak, Leintz bailarako organu onenariarekin", Agirrek dioen bezala.

Larunbat honetako kontzertuan koralaren hasiera eta oraingo momentua dastatu ahal izango ditugu. Lehen zatian, gaurko abesbatzak kantatuko du, oraingo zuzendariarekin, Goio Eskibelekin (*jaiotzez Lakuntzako, baina txikitandik Eskoriatzan bizi dena*). 2. zatian, abesbatzeko lehengo hainbat kantarik lagunduko du, eta zuzendari gisa ere, lehengo egongo da, Luis Ignacio Ruiz de Alegria (orain Goikobaluko zuzendaria).

10. urteurren hau ospatzeko, gainera, zinta bat grabatuko dute uztailean, dena gabon kanta herrikoiz osatuta. Gorosarriren 2. zinta izango da hori, 1987an Arrasate Musikaleko orkestrarekin kontzertu bat grabatu baitzuten. Aurrerago, gabonak aldera, kontzertu sinfonikoa eskaintzeko asmoa ere badute.

Hamarkada honetan, Gorosarri egin dituen bidaien artean, atzerrira Italiara eta Alemaniara egindako bisitak aipa daitezke, eta Ejea de los Caballeros-en (Aragoi) lortutako lehen saria (1984). Epe honetan, Arrasate Musikalekin eta Goikobalu koralarekin elkarlanean ere aritu dira, Arrasate Musikaleko aurreko zuzendariarekin, Juanito Arzamendirekin batez ere.

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

MENDI taberna

Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

• ESAERA ZAHARRA •

“Berak esan eta berak barre arinaren seinale”

• JEROGLIFIKOA •

BASO

A A A A
A A A
A A A A

Nork ekarri dizu oparia?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7	8
9							
10						11	
12				13	14		
15			16			17	
18		19					
20					21		

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arrasateko dantza talde bat. 9. Mugatuak. 10. Soro. 11. (Ald.) Ur, hitz elkartuetan. 12. Kirio. 15. Beruna. 16. Zapata berriak zabaltzeko. 18. Nafarroako udala. 20. Garbi. 21. Plazu.

Bertikalak 1. Moneta. 2. Barregarri. 3. Lehor. 4. Gai sinplea, bere sinboloa C da. 5. Idi, hitz elkartuetan. 6. Errepikatuz, hodi. 7. Pertiako enperadore. 8. Ikusi. 13. (Ald.) 3 adierazten duen aurritzia. 14. (Ald.) Argizari. 17. Osasunaren Erakunde Panamerikarra. 19. (Ald.) Dei-hitza, txo itsasaldean.

• HOROSKOPOA •

Aries Zuk muxukatuko duzun egunaren zain nago norbait.

Taurus Zure begiak egunsentiko eguzkia bezain politak dira.

Gemini Egun batzuk pasa diren arren, San Juanetako bixamona oraindik aldean duzu.

Cancer Zure burua apaintzeari horrenbeste denbora eskeini arren, zatarrak beti zatar.

Leo Uda iritsi denez, garaia duzu merezitako opor batzuk hartzeko.

Virgo Bizimodua lasaiago hartu beharko zenuke.

Libra Horrenbeste lan egitea kaltegarria izan daiteke osasunarentzat.

Scorpio Dirua lortzeko horrelako zikinke-riak egiteak merezi al du?

Sagittarius Erosketak egiterakoan hobe duzu kontua ongi begitatztea.

Capricorn Hi bezalako pertsona baldar-rrak gutxi dituk/n munduan.

Aquarius Ez egin oporretara joateko pla-nik, ezbehar bat gertatuko baitzaizu.

Piscis Urduri somatzen zaitut. Zer gerta-tzen da?

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

· MAITE BARANDIARANEN GOMENDIOA ·



Bizitzaren aurrean, jarrera positiboa izatea da Maiteren gomendioa "goizean jeikitzerakoan denontzat egun on bat desiatzea". Agobioari aurre egiteko yoga egin eta oheratzerakoan, eguna zelan joan den ikusteko, egu-nero erreflexiotxo bat egitea gustatzen zaio. "Lan guzti horiek ondo bete badira "zeure buruari 'portau zara' esatea gomendatzen dizut".
Pertsona positiboa izatea oinarritzkoa da Maiterentzat, eta jarrera horrek asko lagundu diola esaten du. Bizitzako filosofia bat da.

· PROGRAMAZIOA ·



5 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak
 8.8.30,9 Berriak
 9.30 San Juanetako
 ATBketan lehiaketako inalaren errepikaldia

6 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak
 8.8.30,9 Berriak.
 9.30 San Juanetako
 ekainaren 26ko
 Magazinararen errepilapena

7 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak
 8.8.30,9 Berriak
 9.30 Asteko Zinea:
 Harreman arrisksuak


8 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak
 8.8.30,9 Berriak
 9.30 Asteko Zinea:
 Harreman arrisksuak

9 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak
 8.8.30,9 Berriak
 9.30 Asteko Zinea:
 Harreman arrisksuak

· KOMIKIA ·



· SOLUZIOAK ·

Osabak.
JEROGLIKOA
 Ulusi. 13. It. 14. Okze. 17. OEP. 19. OC.
 Idor. 4. Karbono. 5. It. 6. Tu. 7. Xah. 8.
Bertikalak: 1. Txanpon. 2. Xelebre. 3.
 Orko. 18. Oronzte. 20. Neto. 21. Epe.
 10. Alor. 11. Hu. 12. Nerbio. 15. PB. 16.
Horizontalak: 1. Txikitxu. 9. Xedatuak.
GURUTZEGRAMA

**Monte
 taberna**


Maalako errabala, 11
 Tfnoa: 79 20 56

**LORATEGI
 taberna**

Iturriotz, 7
 Tfnoa: 79 04 67
 ARRASATE

HIES EKIMENA
 Astelehen, astearte
 eta ostiral
 5etatik 8etara.
 Tfnoa: 79 26 99

GORKA
 ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM
 Ferrerías, 35 ARRASATE
 Tfnoa: 77 13 78



UNITED COLORS
OF BENETTON.

SPRING / SUMMER COLLECTION 1993

BEHERAPENAK!

ORAIN ERE ARRASATEN